

Erlezain burutsua

Erleek hainbat produktu desberdin ekoizten dituzte. Produktu hauek erleek beharrezkoak dituzte baina guretzat ere oso onuragarriak dira. Erleek ekoiztutako produktuak honakoak dira: apitoxina, eztia, erregina-jelea, argizaria, polena eta propolia.



Apitoxina: erle langileek sorturiko pozoia da. Bere harrapariaren aurka erabiltzeko sortzen dute pozoia hau. Pozoi hau ezten-kaden bidez zabaltzen dute. Pertsona batzuk alergia diote apitoxinari eta osasun arazo oso larriak izan ditzakete baina beste hainbati onura handiak eragiten dizkio apitoxinak. Zenbait gaixotasunen sendagai gisa erabiltzen da erleen pozoia.



Eztia: nektarrari eragindako eraldaketatik sortzen dute erleek eztea. Beseiek jariatzen dute eta erlauntzako abarasketan gordetzen dute. Betidanik erabili izan da eztea elikagai gisa; batez ere, jakiak gozatzeko. Eztea sukaldaritzan erabiltzeaz gain sendagai gisa ere erabiltzen da: erredurak sendatzeko, infekzioak ekiditeko, azala sendatzeko....



Erregina-jelea: erle langileek jariatzen dute eta larbentzako elikagai gisa erabiltzen da. Erle guztiek lehen hiru egunetan erregina-jelea jaten dute baina handik aurrera erreginak baino ez du izaten erregina-jelea elikagai gisa. Erregina-jeleak kolore horia du eta zapora garratza. Erreginak bere bizitza osoan ez du besterik jaten eta honek biziraupen handiagooa izatea baimentzen dio; erle langileek 45 egun irauten dituzte eta erreginek 5 urte. Pertsonentzat erregina-jelea hartzea oso onuragarria da indar handia ematen baitu.



Argizaria: erle langile gazteek jariatzen dute eta erlauntzaren eraikuntzarako erabiltzen dute. Argizariarekin kandelak egin izan dira betidanik eta egurra eta oihalak ezkoztatzeko ere erabili izan da. Hainbat ukendu eta krema ere egiten dira argizariarekin.



Polena: loreetatik lortzen dute erleek eta abarasketan gordetzen dute. Elikatzeko erabiltzen dute. Polena jan baino lehen eztiarekin estaltzen dute. Polenak bitamina asko dituen oso egokia da kirolarientzat eta baita ahulaldia dutenentzat ere.



Propolia: zuhaitzetatik lortzen dute erleek. Erlauntzara eramaten dute eta egindako eraldaketaren ondorioz antibiotiko indartsua bihurtzen dute. Erlauntzaren pareta guztietan zabaltzen dute propolia bakteriengandik babestuta egoteko. Ahalmen terapeutiko ugari dituen, hainbat gaixotasun sendatzeko oso baliagarria da propolia.



Jolas honetan, erleek produzitzen dituzten sei produktuak biltzea duzu helburu. Horretarako, markatu den puntutik sartu eta geziek agintzen duten norantzan mugituz, hiru hexagonoetan banatuta dauden sei koloreak bildu beharko dituzu: horia (polena), laranja (eztia), zuria (argizaria), berdea (propolia), morea (apitoxina) eta urdina (erregina-jelea).

Erlauntza guztietan gertatzen den moduan, ezusteko askori egin beharko diozu aurre. Izan ere, lauki batzuek "ordain-sari" moduko bat dute eta batzuetan bildutako gutzia galtzera behartuko zaituzte.

Kontuan har, bildu ez denik ezin dela galdu. Hau da, "hartza bistan, ezti guztia galdu duzu" dioen laukira heltzen baldin bazara, baina une horretan ezirik edo fitxa laranja ez baduzu, ez da ezer gertatuko. Txanda hurrengoari eman, eta kitto.

Berez, sei koloreak biltzen dituen lehen jokalaria izango da txapelduna. Baina, erne. Kolore bakoitzetik fitxa bana, besterik ez. Erlauntza burutsua bazara, ez dituzu erleak lehertu nahiko eta ez diezu behar baino gehiago eskatu nahiko. Horregatik, koloreen batean soberakinak baldin badituzu (demagun hiru fitxa laranja dituzula eta gainerakoetatik bana), "utz soberakinak" dioen laukira heldu beharko duzu bi fitxa laranja bertan utzi eta partida bukatutzat emateko.